

2021-11-12 / 711. ZENBAKIA / 17. IIRTEA



Euskarazko produktuen katalogoa, eragin handiko gida Gabonen atarian / 6-7



web
irratia
prentsa
historia
kazetaritza

web
irratia
prentsa
historia
kazetaritza

XXXIII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA 2021

Eguna: Azaroak 19, ostirala

Ordua: 19:00

Eman izena aurretik:
<https://labur.eus/>
RAKS_izen-ematea Kulturgunea

Ekitaldian Martin Ugalde gogoa izateaz gain, hainbat musikari eta dantzariekin gozatzeko aukera ere izango dugu: Susana Cencillo, Mikel Moreno eta Anne Lukin, Urki eta Oinkari.

XXXIII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA 2021

Eguna: Azaroak 19, ostirala

Ordua: 19:00

Eman izena aurretik:
<https://labur.eus/>
RAKS_izen-ematea Kulturgunea

Ekitaldian Martin Ugalde gogoa izateaz gain, hainbat musikari eta dantzariekin gozatzeko aukera ere izango dugu: Susana Cencillo, Mikel Moreno eta Anne Lukin, Urki eta Oinkari.

XXXIII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA 2021

Eguna: Azaroak 19, ostirala

Ordua: 19:00

Eman izena aurretik:
<https://labur.eus/>
RAKS_izen-ematea Kulturgunea



Imanol Iruretagoiena eta Txomin Rosco ehiztariak Otsolepoko 16. postuan, txoriei so, astearte goizean. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Ehiza aktibitate jendetsua da Beterri-Buruntza eskualdean. Dozenaka dira udazkeneko eskopeta hartu eta postu bat lortzeko enkantean izena ematen dutenak. Uso eta birigarro ehiztariak dira, eta egun batzuk barru hartuko dute atsedena, udazkena negutzearekin bat. Urnietan mugimendu handia sortzen du ehizak. Santa Cruz elkarteak 62 postu jartzen ditu enkantean egunero, eta dozenaka ehiztari bertaratzen dira elkarte atarira urria eta azaroan horietako posturen bat lortzeko asmoz. Urnieta, Andoain, Hernani eta Donostiakoak dira gehienak. Urnietan hiru ehiza gune daude: Goibietan, Xoxoka eta Otsolepo.

“Goibietan da denetan eremu erakargarriena, erosoena delako”, dio Imanol Iruretagoiena ehiztari eta Santa Cruz elkarte kideak. 22 postu jartzen dira enkantean Goibietan: “Herri-ritik gertu dago, eta uso edo birigarrorik pasatzen ez bada, eskopeta gorde eta etxean zaudete bost minutuan”. Xoxokako gunea da bigarren gunea, 15 postu. “Goibietan eta Otsoleporen arteko zerbait, nahiz eta herri-ritik urrunxeago egon”. Eta Otsolepo azkena, Onddo eta Zaburu mendien artean. 25 postu jartzen dira enkantean han, eta pasatzen den ehizaren arabera, izen ema-

Afizioa latza, ehiza eskasa

Udazkenarekin ehiztarien fauna loratzen da Urnietako mendi inguruetan; Hirurogeita bi postu jartzen dira enkantean guztira, eta mugimendu handia sortzen da herriko enparantzan eguna esnatu aurretik

te gehien, edo gutxien izaten ditu. Arrazoia, Iruretagoiak: “Otsolepora joateko orotariko autoa behar duzu, herri-ritik 45 minutuko bidea iristeko, eta beste hainbeste herrira bueltatzeko. Ehiza postuak 700 metrotik gora daude, eta han eguraldia Goibietan eta Xoxokan baino askoz gordinagoa, gaiztoagoa da”.

Aiurri astekariak ehiztarien egunerokoa gertutik ezagutzeko aukera izan du Imanol Irureta-

“GOIBIETA DA DENETAN EREMU ERAKARGARRIENA, EROSOENA DELAKO”

IMANOL IRURETAGOIENA

goiena, Txomin Rosco eta Iñaki Modinoren eskutik. Otsolepoko 16. postua lortu dute enkantean, bezperan, Onddo eta Zaburu mendien arteko lepoan, hain juxtu. Imanol eta Txomin dira enkanteetako arduradunak, Javi Cambrarekin batera. Bezperan Goibietan eta Otsolepoko postuen enkantea egin dute, eta goizeko 06:30an Xoxokako postuena Laxaro Oiarbide eta Iratitz semeak. Gau itxia da San Juan Plazan, baina Kantoi taberna bor-bor dago, Juan Blanco tabernaria kafeak egin eta egin, eta enparantza orotariko autoz betea. Hainbesterako, plazak auto handi horiek saltzen dituen kontzesionarioa dirudiela. Aparkatzeko tokirik ez, eta baimena eskatu zioten ehiztariek Udalari,

autoa bertan ordu erdiz utzi ahal izateko.

Besabi, lehen geltokia. Han orotariko autoa hartu, eta Montefrio eta Antxoko Etxolan barrera, mendira. Autotik postura bost minutuko bide eskasa dago, eta karga-karga eginda doaz: eskopeta, kartutxoak, arropa... Zenbat kartutxo? “Asko!”, bota du Txomin Rosco. “Hemen egunak eman ditzakezu tiro bakar bat bota gabe, baina egunen batean 500 egin,

“PAZIENTZIA BEHAR DA HEMEN, PAZIENTZIA HANDIA”

TXOMIN ROSCO

uso pasa latza dagoelako. Prestatuta etorri behar duzu, kartutxorik gabe geratzea baina gauza okerragorik ez baitago ehiztariarentzat”.

Postua 720 metrora dago. Hozta dago, lauzpabost gradu, baina eramateko modukoa, itxuraz, haizerik ez baitabil. Adi daude Imanol eta Txomin. Eskopeta sorbaldan hartu eta prest: “Pazientzia behar da hemen, pazientzia handia. Hor atzeko zuhaitz horiei erreparatu, eta adi egon, txoriren bat pasatzen bada, tiro egin eta txoria botatzen saiatzeko”.

Bost tiro eta bi birigarro

Eskopetak pisua du, eta ehiztariek etengabe aldatzen dute posturaz. Birigarro sorta azaldu da, eta tiro hotza. Danba! Imanolek kale, Txominek asmatu. Birigarroa bota du. Poltsara. Ordu erdira, beste sail bat. Bota du Imanolek, eguneko bigarrena. Bi orduko jarduna, bost tiro eta bi birigarro, eguneko uzta. Usoen arrastorik ez. “Iraganeko kontua da hori”, dio Txominek, atsekabetu antzean. “Oso gutxi pasatzen dira tiro egiteko moduan. Oso goitik beti, edo gauez, hirietako argiteria baliatuz. Zenbaitzuk dagoeneko Landetatik hegora ez direla pasatzen diote, han jana badutelako, eta neguak, dagoeneko, ez direlako hain negu. Urte batzuk atzera sorta itzelak pasatzen ziren, Otsolepo uso pasa tokia delako. Egun, apenas”.

Imanol egunero igotzen da ehizara, urrian eta azaroan zehar. Txomin eta Iñaki noizean behin, asteburuetan errazago. Ehiza aisialdi aukera moduan ulertzen dute, lagunartean egoteko unea, eta egunean bildutako uztari ez diote garrantzirik ematen: “Afaritxo bat egiteko lain baldin badago, gu kontent”, dio Modinok. “Mendian ordu pare bat pasa, gero Besabin hamaiketako egin, eta listo, eguna egina!”. Besabin, arrautza pareta, beste pizgarri batzuk eta sagardoa lagun, ehiztarien galdera: “Zer, ikusi duzu ez garela hain gaiztoak, ezta? Hondakin guztiak jasotzen ditugu, konforma errazak gara, eta ehizatutakoa jatea atsegin dugu. Ez al da hori, supermerkatuetako janari prozesatu guztia baino hobea?”.

Ehiztarien hausnarketa, zuretzat, irakurle.



Txomin Rosco eta Javi Cambra Goibietako postuen enkantea egiten, Santa Cruz elkarteko atarian. Ondoko argazkian, ehiztariak emaitzen zain. AIURRI



Imanol Iruretagoiena enkanteko emaitzak apuntatzen. Ondoan, San Juan plaza orotariko autoz betea, eta eskuinean Kantoitaberna jendez beteta. Juan Blanco Kantoitabernako zerbitzaria lanean ari da. AIURRI



Hurrenez hurren, Iñaki Modino, Txomin Rosco eta Imanol Iruretagoiena ehiztariak, Otsolepoko 16. postura bidean, astearte goizean. Bi birigarro ehizatu zituzten. AIURRI



Ehiztariak sarri kontsultatzen dute Frantziako Palombe webgunea. Bertan usoen mugimendua agertzen da. Eskuinean, ehiztarien tradizio gustukoena: hamaiketakoa Besabin, etxera bueltatu aurretik. AIURRI

GUTUNA

**ASIER ARABAOLAZA USARRALDEREN
SENITARTEKOAK** ANDOAIN**Eskerrik asko**

ARABAOLAZA USARRALDE SENDIA

Pasa den urriaren 30ean kolpe gogorra jaso genuen, Asier gure artetik joan zelako. Idatzi honen bidez eskertza adierazi nahi diegu egun zail hauetan babesa erakutsi diguten guzti-guztiei. Eta bereziki gogoan ditugu ezbeharra gertatu zen unetik zuten onena eskaini zigutenak. Eskerrik asko anbulantziako langileei, Donostia Ospitaleko erizain eta medikuei, etxean antolatutako genuen omenaldi ekitaldian laguntza eman zenuten bolondresei, gure Asier maite izan duzuen guztiei eta gure mina arintzen lagundu diguzuen guztiei.

Asierrek utzi duen hutsunea ez du inork estaliko, baina zuen laguntzarekin etorkizunari aurre egitea errazagoa izango da.

Eskerrik asko denoi, bidean ikusiko gara.



ONDARRETA

Bertxin elkartearen hitzordu parte hartzailea

Andoaingo Bertxin Jubilatu eta Pentsionisten elkarteak Leitzaran bailaran barrena ibiltzera irten ziren asteburuan, Goikoplazan hitzordua jarri eta gero. Eguerdian, eta aspaldiko partez, 139 kide Oianume jatetxean bildu eta bazkaria aitzakia izanda, elkarrekin egoteko aukera eduki zuten.

Pandemiak derrigortuta bolada luzez geldirik egon ondoren, martxan jarri direla esan daiteke. Ekitaldi ugari antolatutako asteetarako; besteak beste, Santo Domingo de la Calzadara eta Bordelera irteera bana. Ekitaldien berri ematen jarraituko dute, elkarteak kideek.



AIURRI

Kontzertu interesgarria maila handiko bi musikarien eskutik

Ana Belen Garcia organo-jole andoaindarrak ohorezko gonbidatua izan zuen Andoaingo San Martin elizan antolatutako kontzertuan. Joxetxo Goia-Arribe saxo-jole doneztebearra, hain zuzen. Besteak beste C. M. Widor (1844-1937) konposatzailearen ganbara-musika estiloko bi piezaz gain Goia-Arribe

sortutako hainbat pieza jo zituzten. Emanaldia hasi aurretik Andoaingo organoari buruzko azalpen pedagogikoak eskaini zituen Garciak. "Gipuzkoako Organoak Plazara" izeneko kultur-programazioaren baitan antolatutako emanaldia oso atsegina izan zen kontzertura hurbildu ziren ikusleentzat.



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etbez ebeko harpidetza-sistema. Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Truxuelo.**Kudeaketa, harpidetzak:**

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnieta).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.**ISSN:** 1698-4870.**Tirada:** 4.000 ale.**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.**EKOIZLEA:****ALIATUAK:****BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:**

ANDOAINGO UDALA



URNIETA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:**BABESLEAK:**

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



DEIALDIA

Poxta Zahar taldearen deialdia

Urnietako gazte taldeak deialdi berezia egin du. Etorkizunaz hitz egiteko garaia delakoan, kide berriak batzeko deialdi zehatza egin dute. Sare sozialetan banatu duten mezua hauxe da: "Kaixo Urnietar gaztea! Jakin dakizunez, ez ditugu garai errazak bizi izan azkenaldian, eta Poxta Zahar gazte kuadrillen elkartearentzat ere halaxe izaten ari da. Izan ere, taldea ez dago bere momentu onenean, ez baitago urteroko lanak aurrera eramateko indarrarekin. Lan handia egiten dugu herriko festen alde, eta gure jarduna egun jakinetan islatzen bada ere, urte osoan hamaika egiteko dago. Orain hamazortzi urte hartu zuen gazte talde batek Poxta Zahar sortzeko konpromisoa, eta belaunaldiz belaunaldi igaro da gaurdaino. Orain, lekukoa esku gazteagoetara pasatzeko momentua dela uste dugu.

Horregatik, azaroaren 26an egingo dugun bilera irekira etortzeko deia zabaltzen dizugu, Poxta Zaharrek bere bidea jarrai dezan, herriari bizia ematen jarrai diezaion Poxta Zahar bizirik behar dugu!".

"Andoain Txartela herriko txartela da"

SANDRA VIEIRA SALKIN ELKARTEKO DINAMIZATZAILEA

Andoain Txartela Rural Kutxak dohainik eskaintzen duen VISA txartela da. Salkin elkarteak, urtean zehar, txartelaren erabilera sustatzeko ekimenak antolatzen ditu

Erredakzioa ANDOAIN
Kanpaina berria martxan jartzen ari zarete. Zertan datza?

Andoain Txartelarekin erosketa eginez gero, erosketa horrek bost euroko hobaria izan dezake. Hobaria hilabetearen amaieran agertuko zaio bezeroari, banketxeko agiri baten bidez. Erosleak bost euroko diru-sarrerara izango du bere kontuan. Sistematika erraza da, ez baitie aparteko lanik eskatzen dendariari eta erosleari.

Andoain Txartelaren erabilera zenbatekoa da?

1.300 daude indarrean, azken datuen arabera. Herrian erosteko erabilgarria da, eta baita Visa modura erabiltzeko ere. Herriko txartela da. Doakoa da, ez baita eskuratzegatik ezer ordaindu behar. Rural Kutxaren eskaintza da, baina ez duzu zertan bertako bezeroa izan behar. Demagun Kutxabankeko bezeroa naizela.



Sandra Vieira Salkin elkartearen egoitzan, Agustin Leitza kalean. AIURRI

Andoain Txartela eskuratuz gero Kutxabankeko kontura lotzen da. Andoainen berrogei merkatalgune eta ostalaritza negoziotan erabili daiteke. Denetik dago: Belardendak, harategiak, arraindegia...

Zer esango zenieke erosleei? Herritarrak animatu nahi ditut txartela erabiltzera eta

erosketak herrian egitera, gure herriko merkataritza bizirik egon dadin. Esfortzu handia egiten ari dira, pandemia garai honetan, negozioarekin aurrera egin ahal izateko. Bizitza ematen diote udalerriri. Zorionez, aurrera egiteko borrokan ari diren dendariak eta ostalariak ditugu Andoainen.

EGUNEAN BEHIN

"Itsaso" jokalaria, seigarren asteko zozketaren irabazlea



Itsaso, azken asteko irabazlea. AIURRI

"Itsaso" erabiltzailea izan da azken asteko zozketan irabazlea, azaroaren 1etik 7ko partidei dagokiona. "Aiurri" taldean jokatzeko ari diren ehunka kideen artean zozketa egin eta gero, irabazlea bera andoaindarra izan da. Aste honetako lehiaketa martxan dago, zazpigarrena aukera aiurrizaleentzat. Aurreko asteko irabazleak "Ezkide", "Aimar", "Haizea", "Jon Ander" eta "Oterber" izan ziren. Denek ere Arruti gozotegiko saria eskuratu dute. Zorte on, gainerakoei.

EFEMERIDEA

Ezusteko heriotza

2019ko azaroaren 14an zendu zen Luis Angel Orte Artolazabal, 55 urte zituela. Federópticos Orte dendako jabea zen; 1989an ireki zuten denda Kale Nagusian, eta berak zuzentzen zuen negozioa. Merkatarien artean samin handia eragin zuen bere heriotzak. Andoaingo Salkin merkatarien elkarteak lehendakaria izan baitzen, eta herriko merkataritza sustatzeko helburu zuten makina bat ekimenetan jardun zuen, buru-belarri. Bera izan zen egitasmo askoren bozeramailea eta irudia. Tolosan, bere bizitokian, egin zioten azken agurra.

GORA ETA BEHERA



Martxeli Zabaletari agurra eta eskertza

Urriaren 28an 40 urtez La Salle Berrozpe ikastetxeko irakasle izandako Martxeli Zabaleta omendu zuten. Etapa berri bati ekingo dio bere bizitzan, erretiroa hartu baitu. Lankideek eskertza adierazi zioten: "Ohorea izan da guretzat Martxeli zu bezalako pertsona baten aldamenean lan egitea. Eskerrik asko emandako maitasun guztiarengatik!".



LA SALLE BERROZPE IKASTETXEA

SAREAN

Eskaintza bereziak Zumea kaleko Amabi arropa dendan

"Outlet astea alaitu dezagun azaroa! Aurreko denboraldiko aukera politak". #andoain #amabiandoain #haurrak #outlet #haurjantziak #gazteerropa #dendatxikiakbizirik



INSTAGRAM



Paperean eta internet bidez banatzen da Katalogoa. Egun buletineta harpidetzeko aukera ematen duena. NOAUA

"Katalogoko produktuak gehiago saltzen dira"

23 edizioko bidea jorratu du Euskarazko Produktuen Katalogoak. Lehenbizi papereko edizioan, gerora baita sarean ere. Egitasmo honek izandako bilakaera azaldu digute lerrootan sustatzaileek

Erredakzioa URNIETA

Zein izan zen egitasmo honen abiapuntua? Euskarazko produktuen katalogoa lehen aldiz argitaratu genuenean euskarazko produktuak, hein handi batean, ezezagunak ziren, eta gurasoek ez zuten euskarririk Eguberrieta-ko erosketetan euskarazko kalitatezko produktuak erosteko. Nafarroan sortu zen egitasmoa

izan zen, eta ondoren hedatu zen beste lurraldeetara. Hasiera batean paperezko katalogoa zen soilik, Eguberrien bueltan banatzen zena, baina gaur egun webgunea ere bada, buletineta harpidetzeko aukera ematen duena.

Nola egiten duzue produktuen hautaketa? Zeintzuk dira irizpideak? Garai batean –liburuetan izan

ezik eskaintza handiagoa zelako– zegoen guztia plazaratzen genuen katalogoan, betiere kalitatezkoa baldin bazen. Gaur egun, zorionez, ekoizpena askoz ere handiagoa da, eta hautaketa bi lagunek egiten dute: diskoak Badokeko arduraduna den Jon Eskisabelek egiten du eta liburuena, berriz, Migel Angel Asiain “Osio”-k, Galtzagorriko lehen-

dakaria izan zenak eta Haur eta Gazte Literaturan aditua denak.

Zer hedapen du egun egitasmoak? Urte batzuetan Euskal Herri osoan banatzen zen katalogoa, baina Iparraldean zailtasunak zituzten produktuak eskuratze-ko, eta haien katalogoa egiten hasi ziren. Egun Nafarroan zein EAEn banatzen da eta Iparraldean ez da katalogorik banatzen. Gure nahia litzateke berriz ere Iparraldean zabaldu ahal izatea, egun askoz errazagoa baita produktuak eskuratzea. Aurten 70.000 ale inguru banatu dira, eta 100 toki-entitate baino gehiago dira egitasmoan parte hartu dutenak.

23. ediziara heldu den egitasmo mugarririk nabarmenetako bi, digitalizazioa eta eskaintzaren handitzea izan dira, ezta? Eskaintza horren handia denez, motz geratzen gara paperezko katalogoarekin. Gainera, beti dira paperezko euskarria banatu eta gero plazaratzen diren produktuak. Horiek horrela, buletinak banatzen dizkiegu harpidedunei azken nobedadeen berri emateko. Hor-taz, esan liteke osagarriak direla paperezko katalogoa eta webgunea.

Zer eragin izan du katalogoak produktuon salerosketetan eta euskararen ikusgarritasunean? Jakin badakigu katalogoan agertzen diren produktuak gehiago saltzen direla. Nolanahi ere, arazo handi bat dugu ikusgarritasunari dagokionez: azalera handiak. Maiz saltoki horietan eskaintza urria da euskaraz, eta, gainera, ez dira oso agerian egoten diren produktuak.

Liburu denda txikietan asko hobetu da egoera azkeneko urteetan aldeztu aurretik badutela-ko katalogoa eta haien stocka osatu dezaketelako, eta, gainera, eskaerak gaur egun oso epe motzean jasotzen dituzte logistika gune handi bat dagoelako Euskal Herriaren erdialdean.

Aurrera begira zer nolako bidea aurreikusten diozue katalogoari? Urtero gure zalantza izaten da ea paperezko edizioarekin jarraitu behar dugun ala ez, baina egia da familiek estimatzen dutela euskarria, baita dende-ere. Errazagoa egiten da hautaketa. Nolanahi ere, webgunea izugarritzko tresna da, 8.000 produktu inguru biltzen dituena. Gure etorkizunerako erronketako bat da webgunearen berri ematea, erreferentziako tokia izan dadin.

Halako baliabideen beharra izaten segituko dugu? Zergatik? Garai bateko arazoa produktuen ezagutza falta zen, baina azkeneko urteotan eskaintza olatu batek hartzen gaitu, batik bat urte bukaeran eta Liburuaren Egunaren bueltan. Beti beharko da kalitatezko produktuak aholkatuko dizkiguna, izan digitala edo izan analogikoa.

Beste ezer aipatu nahiko zenukete? Uste dut azpimarratu behar dugula gurekin aritzen diren enpresetako langileek egiten duten lana. Garai batean teknikariek egiten genuen dena (produktuen bila joan, hautatu, diseinatzailerari eraman eskaneatzea zitza-n...) baina gaur egun ezinbestekoak dira Ttipi-ttapa fundazioko langileak, Biak inprimategikoak eta Iametzakoak.

Aisialdia euskaraz bizitzeko gida lagungarria

Ate joka dugu urte amaiera, garai ezin aproposagoa etxe askotan opariak elkarbanatzeko eta oparien bidez, aisialdi tarte ederra bizitzeko. Milaka produkturen erreferentziak biltzen dituzte proiektu honetan batuak dauden Euskal Herriko udal eta mankomunitateetako 100 Euskara Zerbitzuko baino gehiagok.

70.000 ale

Katalogoaren hedapena nabarmentzeko modukoa beraz; papereko edizioko 70.000 ale banatuko dituzte asteotan Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan; tartean noski, Buruntzaldeko udal zerbitzuetan edota ikastetxeetan. Ohi bezala, bi atal

izango ditu sustatzaileen esanetan; 12-16 urte arteko zuzenduriko eskaintza batetik, eta 0-12 urte arteko haurren eta haien gurasoei begirakoa atala bestalde. “Musika, DVD-filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako materiala”. Adin tartearen arabera, edota aipatu produktu motaren arabera bilaketa egin daiteke katalogoan.

Webgune bizia

Papereko edizioa online bidezkoaren erakusleio bat da; baina ez eskaintza osoarena, “atala antolatutako hautaketa bat baizik”. Sarean aldiz, 8.000

produkturen erreferentziak aurkitzeko, katalogoa.eus helbidean hain zuzen. Webgune dinamikoa da, bizia, sustatzaileen esanetan, “maiztasunez eguneratzen den web-orria da, argitaratzen diren produktu berriak sartuz, deskatalogatu direnak kenduz”. Papereko edizioan bezala, eskaintza 0-12 eta 12-16 urte tartetean bereizita dute. “Eta ez hori bakarrik, atal bakoitzak bere direktorioa du eta, hartara, tipologia bakoitzeko produktuen bilaketa nabarmen erraztu eta hobetzen da produktuak tituluaren, argitaletxearen, autorearen, adin-tartearen edota prezioaren arabera bistara daitezkeelako. Azkenean, erabiltzaileak produkturen bat begiz joz gero, argitaletxearen denda birtualera sartzeko

manera izango du non eskuratu botoian klikatuta”.

Webgune bizia da aipatu moduan; berritzen doaz urtean zehar. Nobedadeen berri izan dezakegu Euskarazko Produktuen Katalogoa egitasmo buletin elektronikora harpidetzen bagara. “Harpidedunek urtearen buruan 10 buletin jasotzen dituzte, argitaratu berri diren produktuen erreferentziekin. Izan ere, horixe baita katalogoa.eus atariaren helburua: merkatuan aurki daitezkeen euskarazko azken nobedadeak ere erabiltzaileen eskura modu erraz batean jartzea”.

Opariak egiteko egun seinatuak ate joka ditugun honetan, aisialdirako euskarazko produktuak elkarbanatzeko gida ezin lagungarriagoa.





Alex Huitzi, Estibalitz Alkorta, Juanmari Larrarte, Unai Ugalde, Maider Lainez, Itsaso Ugalde, Ugalde familiaren lagun bat, Arkaitz Millan eta Txitxu Ruiz erakusketaren irekiera-ekitaldian. AIURRI

Erakusketa zabalik, Bastero Kulturgunean

Martin Ugalde kazetari, idazle, politiko eta euskaltzalearen bizitza eta obra ezagutzera emateko asmoz Bastero Kulturgunean jarri duten “Martin Ugalde Orradre. Andoain 1921 - Hondarribia 2004” erakusketa zabalik dago, abenduaren 4ra arte

Xabier Lasa ANDOAIN

Martin Ugalde Orradre Andoaingo kazetari, idazle, politiko eta euskaltzalearen bizitza eta obra ezagutzera emateko asmoz Basteron jarri den “Martin Ugalde Orradre. Andoain 1921 - Hondarribia 2004” erakusketa ireki zuten joan den ostiralean. Andoaingo herriko seme kuttunaren ohorez egunotan antolatua

diren ekitaldietako bat da horixe, eta abenduaren 4a bitarte egongo da ikusgai.

Unai Ugalde semeak, Maider Lainez Andoaingo alkateak, Estibalitz Alkorta Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak, Arkaitz Millan Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola departamenduko zuzendariak eta Juanmari Larrarte

Martin Ugalde Kultur Parkeko ordezkariak hartu zuten hitza, ekitaldi irekieran.

Lainezek bere hitzaldian Ugaldek Andoaingo herriari utzi zion ondarea izan zuen aipagai, besteak beste: “17 urte dira utzi gintuenetik, baina horietan oso hurbil izan dugu, behin eta berriro ibili behar izan baitugu berak ohi zuen eskuzabaltasunez

Andoaingo herriaren eskuetan utzi zuen bere ondareari dagozkion lanak egiten, erabakiak hartzen, ondare hori bilduko duen liburutegi berrirako urratsak ematen, eta dena bere obra osoa euskaldun ororen irismenean jartzearen. Martinek utzi gintuen, baina gogoz inoiz baino biziago da gure artean, eta gaur zabalduko dugun erakusketa horren lekuko da”.

“Izan zirelako gara eta gare-lako izango dira” esaerari heldu zion Larrartek. Ugalderi buruzko erakusketaren garrantzia nabarmentzeko, eta zera erantsi zuen: “Baina izan zirela jakin egin behar badugu, nahitaezkoak ditugu gaur irekitzen dugun erakusketa eta antzeko ekimenak. Izan ere, gaur egun azkar ahazten zaigu dena, dena zahar bihurtzen da berehala, atzendu egiten da”.

Estibalitz Alkortak Ugaldek Euskal Herriarekin erakutsi zuen konpromisua nabarmendu zuen, Basteron. “Hitz horrekin lotzen dute Martin galde ezagutu zuten guztiek. Konpromisua, euskal kulturarekin eta literaturarekin, kazetaritzarekin, politikarekin, euskalgintzarekin, herrigintzarekin...”.

Arkaitz Millanek, berriz, Ugalde askatasunaren kontzeptuarekin nola zegoen tematua gogorarazi zien Basteroko ekitaldira hurbildu ziren entzuleei. “Diktaduraren gau ilunean totalitarismoa nagusi zen kultura hartan, adierazpen oro itota zegoenean, Martinek bazekien askatasuna baliorik garrantzitsuena zela, eta aldi berean, ez dagoela balio horren sakrifizioa merezi duen arrazoi edo ideologiarik”.

Batasunaren aldeko mezua

Unai Ugalde semea izan zen hitza hartu zuen azken hizlaria, eta mezu argia zabaldu nahi izan zuen. “Aitak grinatsuki jardun zuen euskaldun guztiak biltzeko, eta neurri batean, nahiz eta garai zailak bizi, hori posible zela erakutsi zigun praktikan. Egia da bere orduko mundua eta gaurkoa ez direla berdinak, gauzak asko aldatu direla, baina oinarritzko ideia horri, batasunaren ideari eutsi beharko genioke. Nahiko nuke gure aitaren ibilbidea eredugarria izatea gure atzetik datozenentzako; batasunari ez badiogu heltzen, ez daukagu etorkizunik herri gisa”.

"BATASUNARI EZ BADIOGU HELTZEN, HERRI GISA EZ DUGU ETORKIZUNIK"

UNAI UGALDE, MARTINEN SEMEA





Ilustrazio-sorta egin du Garbiñe Ubedak, Martin Ugalderen ipuinetan oinarriturik. GARBIÑEUBEDA

"Hiltzaileak" liburuaren podcasta, entzungai

Ipuingintza modernoaren aitzindaritzat hartu izan da Martin Ugalderen liburua. Aurrerantzean ipuinak entzuteko aukera izango da Larramendi Bazkunaren eta Aiurriren webguneetan, Andoaingo Udalarekin batera landutako egitasmoaren bidez

Erredakzioa ANDOAIN

Martin Ugalde Orradrek 1961. urtean Venezuelen idatzitako "Hiltzaileak" ipuin bilduma CD-audio modura aurkeztu zuten Koldo Mitxelenan eta Bastero Kulturgunean, 2003ko azaroaren 13an. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak argitara eman zuen lan hura, Andoaingo Udaren laguntzarekin. Idazle andoaindarraren lehen euskal liburua izan zen, ordura artean gaztelaniaz idatzi izan baitzuen. Erresistentzia garaiko bost narrazio laburrek osatzen dute liburua, euskal ipuingintza modernoaren aitzindari izan zelarik. Horixe nabarmendu zuen Larramendi Bazkuneko lehen-dakari Jon Unanuek CDaren

aurkezpenean, "euskal ipuingintzaren historian zutoin berritzailea" izan zela adieraziz. Bost ipuin horiek entzun egin ahal izango dira webgunean. Joxe Manuel Goikoetxea izan zen ipuinen narratzailea, hainbat bikoizleren ahotsekin tartekatuta. Donostiako Irusoin etxean grabatutako lana izan zen hura.

Azaroaren 11n hasita, ipuin-liburua atalka entzuteko aukera izango da Larramendi Bazkunaren webgunean eta baita Aiurri.eus webgunean ere. Aiurriko webgunean, esaterako, kanal berezia sortu da ipuinak atal berean entzun ahal izateko. Digitalizaziorako urratsa Andoaingo Udaren laguntzarekin egin ahal izan da.

Garbiñe Ubedaren ilustrazio-sorta

Martin Ugalderen jaiotzaren mendeurrenarekin bat eginez, audioak entzungai daude beraz. Badu ekimenak alde berritzailea. Izan ere, Aiurri eta Bazkunak ipuin-bildumaren audioak ilustratzeko enkargua egin zioten Garbiñe Ubedak ilustratzaileari. Andoaingo Gudurako egin zuen lanaren ildotik, oraingoan ere kontakizuna ilustrazio bidez agertzeko saiakera egin du. Iru- di horiek guztiak ikusgai daude bi webguneetako audioekin batera. Era berea, Aiurri hamaboskarian "Gizaerailtza" ipuina osoki argitaratu da Ubedak ekinaldi honetarako sortu dituen ilustrazioekin batera.

**IPIINGINTZA
MODERNOAREN
AITZINDARITZAT
HARTU ZEN
UGALDEREN LIBURUA**

**MEMORIA ARIKETA
BAT DA, 36KO
GERRAKO ETA GERRA
OSTEKO GERTAERA
ILUNEI LOTURIKOA**

**LARRAMENDIBAZKUNA.
EUS ETA AIURRI.EUS
WEBGUNEETAN IPUINA
ATALKA ENTZUTEKO
AUKERA DAGO**




Anjel Lertxundi idazlea. EREIN

Ugalde gogoan | Aurkezpena

Anjel Lertxundik 1997an Martin Ugalderi buruz idatziriko glosak berrargitaratzeari ekin dio Andoaingo Udalak. Lertxundik berak heldu dio lan horri, eta 1997. urtetik aurrerako Martinen bizialdiarekin osatu du. Emaiza "Martin Ugalde mendeurrena. Herriminaren prosak" izeneko liburua da.

Azaroaren 15ean, 19:00etan hasita, liburuaren aurkezpena egingo dute. Eta bertan izango da Anjel Lertxundi. Udaleko Euskara sailak ekitaldira bertaratzeko deia luzatu du.

Euskaldunon Egunkarian Mikel Aldalurrek lehen edizio hartako deskribapena egin zuen: "Hiztegi moduan, A-tik Z-rainoko bidea eginez antolatu zituen Lertxundik glosa hauek eta, bidean, irakurleak zerbait gehiago ikasteko aukera du Ugalderi buruz". 2021eko liburua 1997koaren edizio eguneratua da.



Josu Martinez zinemagilea. EITB

Ugalde gogoan | Ikus-entzunezkoa

"Jainkoak ez dit barkatzen" filma ikusteko aukera izango da, azaroaren 17an. Martin Ugalde eta Lezo Urreiztieta aurrez aurre ageri dira ikus-entzunezkoan, eta berez bigarrenaren protagonista nagusia. Baina abiapuntua Martin Ugalde berarekin egindako elkarrizketa da, eta haren irudiak ikusteko aukera izango da.

Edukiari dagokionez, Lezo Urreiztieta zenaren bizitza aurkezten da. Martinez zuzendariak 2018an egin zuen azalpena: "Lezo Urreiztieta milaka arma erosi zituen euskal antifaxistentzat, ehunka pertsonari bizitza salbatu zien, Franco akabatzen saiatu zen... Lezo Urreiztieta historia harrigarria, bere ahotik".

Filmak ezinbesteko ditu Martin Ugaldek egindako elkarrizketaren audioak. Dokumentala 19:00etan eskainiko dute Bastero Kulturgunean, datorren azaroaren 17an.



2019ko saridunak, finalistak, epaimahaikideak eta agintariak Bastero Kulturgunean egin zen sari banaketa ekitaldian. AIURRI

Rikardo Arregi kazetaritza sariko finalisten soslaia

Euskarazko kazetaritza sari nagusia da Euskal Herrian. Aurtengoan egitasmo berritzaile ugari ageri dira, eta haxe da finalista bakoitza hobeto ezagutzeko soslaia edo deskribapena. Guztiak ere euskarazko kazetaritza-sarea aberasten ari dira

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Azken urteotan lehiaketak formatua aldatu du eta bi sarien irabazleak jakinarazi aurretik finalistak berri ematen dute. Aurtengoan zortzi ekimen dira, bi sail ezberdinetan antolatuta.

Kazetaritza saria

• **Ahomentan seriea, Berria egunkariak udan argitaratutako elkarrizketa-seriea da:** Igandero-igandero bi kide ipintzen zituen parez pare euskarazko egunkariak, makina bat gai jorrazteko asmoz.

Horrez gain, elkarrizketatu bakoitzaren soslaia biltzen dute piezek, hitz gutxitan, irakurleak hobeki ezagut ditzan protagonistak. Tartean izan dira: Jone Uria bertsolaria, Beñat Rodrigo Kiliki Frexko musikaria eta Mikel Odriozola atleta.

• **Beñat Zalduaren “Nola iritsi gara honaino” seriea:** koronabirusaren aferatik abiatuta, askotariko hausnarketak egin ditu GARA-NAIZ-eko kazetariak, historian eman diren beste hainbat gertakirekin lotuta. Zortzi ar-

tikuluz osatutako proposamena da: “Gertatutakoak ez dira kronologia batean sartzen: kontakizun zirkularrak eskatzen ditu koronabirusak”.

• **Zaballako Espetxetik egindako Faktoria saioa:** ETBko irrati estudioetatik irten eta Zaballako espetxera egin zuen salto Faktoria saioak, Iñaki Guridiren gidaritzapean. Esti Arbizu bertako psikologoarekin hitzartu ziren bertan, presondegiak eta buruko gaitzez jarduteko: “Orain dugun ratioa

onartezina da. Preso asko dago eta psikologo gutxi”.

• **Urtzi Urrutikoetxearen Leku-lekutan seriea:** Berria egunkariaren “Mundua” sailean argitaratutako artikuluak dira. Egunkari-ko kolaboratzaile izateaz gain, ETBko kazetaria da Urrutikoetxea. Orain, azken horretan eszedentzia hartuta, AEBtara jo du. Gaurkotasunari irmoki lotutako aferak jorratu ditu, Istanbuldik hasi eta Malvina uharteetara bitarte.

Komunikazio saria

• **Oier Aranzabalen “Barruan gaude” podcast-a:** astero astero mikrofono aurrera hurreratzen da Aranzabal, pertsonaia batekin hitz egiteko. Elkarrizketa sakonak oinarri, gonbidatuen etxean sartzen da kazetaria, esateko dituztenak aditzeko eta entzuleekin partekatze:

Bernardo Atxaga, Arantxa Iturbe, Maite Larburu, Jagoba Errekondo...

• **Basilika podcast-a:** zer pentsatua ematen duten auziak hizpide eta hausnarketa kritikoa funts, mahaiaren bueltan bildu dira zenbait eragile. Nork bere esparrutik, gaurkotasunaren erretratu gardena egiten du diziplina anitzeko taldeak (artistak, idazleak, programatzaileak, zinegileak). Proiektu honen atzean daude, tartean: Sahatsa jauregi artista, Beñat Sarasola idazlea eta Lur Olaiola zinema-zuzendaria.

• **#3000Twitch kolektiboa:** Euskal bideo-joko komunitateak hasitako erronka Game Erauntsia Elkartearekin batera eta Naiz Irratiaren babesarekin. Hiru xede nagusi ditu proiektuak: lehenik, Twitch platafoman euskarazko hizkuntza ofiziala bihurtzea; bestetik, Interneteko sortzaile euskaldunak ikusaraztea; eta, azkenik, ingurune digitalean euskaraz bizitzea ahalbidetzea.

• **Pantailak Euskaraz egitasmoa:** ikus-entzunezkoen munduan hutsune bati erantzuteko asmoz sortutako egitasmoa da, hain justu ere, euskararen erabilera pantailan ere areagotu dadin. Herrigintzatik sortutako proposamena da honako hau: “Indarrak batuz, egoera iraulli eta euskarazko etorkizun bat lortzeko helburua dugu. Herriarren babesarekin erakundeak mugiaraziko ditugu!”.

**SARI BANAKETA
EKITALDIA
AZAROAREN 19AN
IZANGO DA BASTERO
KULTURGUNEAN**



andoaINDARRA
euskaraz

Udal Antzerki Tailerrean parte hartzeko aukera

Urnietako adin nagusiko guztiei zabalik dago antzerkigintzan sakontzeko eskaintza. Izen-emateko aukera zabalik dago Saroben, datorren azaroaren 19 arte. Mikel Agirregomezkorta izango da irakaslea, beste urte batez

Erredakzioa URNIETA

Izena ematen dutenek forma-kuntza eta praktika jasoko dute egiazko esperientziatik abiatuta. Gainera, ikuskizun baten muntaiaren parte hartuko dute, ikas-turte amaieran obra bat taula-ratzeko. Izena emateko adin nagusikoa izan behar da.

Ikasturtea azaroaren 26an hasiko da. Ostiraleko Saroben elkartuko dira, 18:30etik 20:30era.

Izena emateko aukerak ezberdinak dira. E-postaz (sarobe@urnieta.eus), telefonoz deituta egin daiteke (943 00 80 42), edota Urnieta.eus webgunean sartu eta bertan dagoen izen-emate orrialdea beteta.



Antzerki tailerraren emanaldia Saroben, 2015. urtekoa. AIURRI



AIURRI

Liburu berria aurkeztu du

Nerea Tuduri andoaindarrak "No hay agua para las flores" poesia liburua aurkeztu zuen Basteron, aurreko astean. Tuduriren bigarren liburua da; lehena 2019an argitara eman baitzuen. "Inviernos frente al mar" izan zen estreinaldiko liburua. Hurrengo egunetan argitara emango du Aiurrik Nerea Tuduriri egindako elkarriketa.

AZAROAK 25

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA
ANDOAIN. 2021

9 asteartea Bastero, 18:30

FILMA

MeToo fenomenoari buruzko filma: Bombshell.
Antolatzaile: Gizarte zerbitzuak.

12 ostirala Bastero, 18:30

SOLASALDIA

Banaketa prozesuetan ematen diren indarkeriak: kalte-tutako emakumeen testigaintzetatik abiatutako hausnarketak

Solaskideak:

- Izaskun Solagaistua (Taupada zerbitzuaren psikologoa).
- Pepa Bojo (psikologoa eta psikoterapeuta).

16 asteartea Bastero, 17:30

ZINE-FORUM

"Las chicas de la lencería".
Antolatzaile: Zuena emakume elkarte eta Taupada zerbitzua.

18 osteguna Bastero, 18:30

HITZALDIA

"Biolentzia bikarioa" ikuspuntu juridiko batetik.
Hizlaria: Cristina Ramos, Clara Campoamor elkartearen abokatu.

25 osteguna Goikoplaza, 19:00

INDARKERIA MATXISTAREN EMAKUME BIKTIMEI ETA BIZIRIK ATERA DIRENEI OMENALDIA

Ludoteka, 17:00

LUDOTEKA

Bideo emanaldia: "En el mundo de los chicos no se pega a las mujeres".

26 ostirala Gazte lokala, 17:30

Ligoteo sarea tailerra
Antolatzaile: Gazte Lokala.

Bastero, 18:00

SATIRO antzerki foroa

27 larunbata Allurralde kiroldegia

10:00-14:00 eta 15:00-19:00

AUTODEFENTSA FEMINISTA

IKUSEZINA IKUSARAZIZ



ANDOAINGO UDALA

Emakume eta Gizonen Berdintasun Lansaila



Miguel Angel Garrosa eta laguntzaile fidela den Fibi txakurra. GARROSA



Otsoekin topo egin zuen unea. GARROSA

Otsoekin solasean

MENDIZALETASUNA Miguel Angel Garrosa kazetaria hiru otsorekin topatu zen larunbatean txiripaz; haiek grabatzeko aukera izan zuen, bere ustekaberako. Sarean zabaldu zuen bideoak arrakasta handia izan du. Andoango kazetariaren bizipena jaso du Aiurrik

Andoni Urbistondo URNIETA

Elurra egin zuen pasa den astean gure mendietan. Aizkorri, Gorbea eta Saioa zuritu egin ziren, baina Anboton, Miguel Angel Garrosaren mendi kuttunean apenas zuritu zuen. Andoango kazetaria elur gosez zegoen, mendizale asko bezala, eta asteburuan garbi zeukan elurra zapaltzera joango zela Fibi txakurra alboan zuela. Belagoara joatekoa zen, Nafarroara, baina han zakurarentzat gehitxo bota zuelakoan, mendebaldera joatea erabaki zuen, Kantabriako mendietara.

Goizeko zazpi terdiak aldera, autoan zihoala, abereak agertu zitzaizkion errepidean: zaldiak,

behiak... Bazterrak zuri-zuri. Halako batean, bihurgune bat eman eta hiru otso agertu ziren errepidean kieto! Garrosa autoan geratu zen, ikusten ari zena sinetsi ezinik. Hainbesterako, zakur basatiak zirela pentsatu zuela, otsoak errepidean hain lasai egotea ez sinesteko modukoa baita. Hiru otsoetatik bi sasietan ezkutatu ziren azkar, baina bat lasai-lasai abiatu zen larreetara. Autoa geratu eta irten egin zen andoaindarra, sakelakoa eskuetan zuela. Motorra piztuta, badaezpada, eta Fibi zakurra lotuta, arnes batekin, atzeko eserlekuetan. "Hala eramaten dut autoan. Burutik

pasa ere ez zitzaidan egin Fibi askatzea, zuzen-zuzen otsoei zaunka egitera joango zelako, eta batek daki otsoak nola erreazionatuko zuen Fibirekin".

"Otsoa 15-20 metrora zegoen, eta autoa 5-10 metrora. Atea irekita utzi nuen, otsoa nigana etorri izan balitz, garaiz erreazionatzeko moduan", dio kazetariak. Grabatzen hasi zen, eta otsoa Garrosari begira geratu zen bi aldiz, jarrera erasokorrik erakutsi gabe. "Han hasi nintzen konbentzitzen otsoa zela, ze pieza ederra zen, 60-70 kiloko piztia, neguko ilajearekin eta isats luzea". Garrosa oso animalia zalea da, bai etxean edukitzen direnak,

baita aske bizi direnak ere. Twitter sare sozialean daukan kontuan oso ohikoak dira animaliekin dituen topaketak, besteak beste Derio bizitoki ondoan dauden astoekin. Otsoari ere hezitako animalia bailitzan hitz egin zion, 'hola guapo' hitzekin, eta zakurrei egiten zaien txistu soinu ere bota zion.

Egoeraren azalpena, honatx, Garrosak: "Topatze natural bat izan zen, zaldi, asto, txakur edo katuekin gertatzen den bezala. Ez nuen etsaitasun jarrerarik sumatu otsoarengan, eta horregatik ausartu nintzen autotik jaitsi eta grabatzera. Otsoek gizakiak ikusi eta ziztu bizian ihes egiten dutela esaten digute beti. Honek ere ihes egin zuen, baina bi minutuz nigandik gertu egon zen, eta bitan niri begira geratu, segundo luzetan. Ez dakit zergatik egin zuen hori, baina egin zuen, eta ni poz-pozik, noski". Izan ere, kazetaria jakitun da halako pasadizorik bizitzea ia ezinezkoa dela munduko gizakion %99,99arentzat, eta berak, behintzat, bizi izan du, dagoeneko.

Bere txioan ederki islatu zuen une historiko hori andoaindarrrak. Garrosaren aita basozaina zen, Adarramendi eta Onddoko parajeak bere logela bezain ondo ezagutzen zituen, eta gaztetan

otsoen pasadizo asko kontatzen omen zizkion Miguel Angel semeari: "Elkarrekin ikusten genituen Felix Rodriguez de la Fuente zenaren programak, otsoenak, batez ere". Garrosaren aita Avilan jaioetakoa zen, eta bere herrian bizitako pasarteak kontatzen zizkion sarri. "Gaur aita zenarekin, abizena eta sudurraz gain, beste gauza bat ere partekatu dezakedala esan dezaket: txikitari hainbestetan aipatzen zizkidan otsoak ikusi ahal izan ditut! Nire lehen aldian izan da, baina betirako gordeko dudana momentua izango da!".

Zalantzarik ez, bizitzako oroitzapena izango da otsoak, eta txiripaz, hain gertu ikusi eta grabatu izana. Trukean kazetariak sakelakoan sekulako notifikazio mordoa jaso badu ere: 1.000 birtxiokatze eta 11.000 atsegite baino gehiago. Bere bideoak, aldiz, 225.000 ikustaldi pasa izan ditu azken egunetan. Kopuru ikaragarria, baina une historiko batek merezi duena.

**"TOPATZE NATURALA
IZAN ZEN. EZ NUEN
ETSAITASUN
JARRERARIK SUMATU
OTSOARENGAN"**



SD EUSKALDUNA

Jubenil mailako emaitzak

FUTBOLA Urnieta A taldeak garaipen ikusgarria lortu zuen Amara Berriren zelaian (4-5). Eta Euskaldunak berdinketa lortu zuen Kostkas A taldearen aurka. Urnieta B taldeak Astigarraren aurka galdu zuen. Urnieta A taldeak asteburuan etxean jokatu du (larunbata, 18:30).



AIURRI

Denboraldiko azken proba

DUATLOIA Euskal Herriko Mendi Duatloien denboraldia amaitzera doa, etxetik gertu gainera. 15:00tan hasita, Adunako plazan elkartuko dira denboraldiko azken probari ekiteko. Andoaindik gertu izatean, eskualdeko partaidetza handiagoa izango dela aurriztatu da.



AIURRI

Eskalada saioa Andoainen

ESKALADA Andoaingo Gaztetxearen barruko instalakuntzatan bada rokodromoa eta larunbat honetarako eskalada saioa antolatu dute. Goizeko 11:00tan rokodromoko eskalada txapelketa hasiko da eta, bitartean, azoka txiki alternatiboan erosteko aukera egonen da.



URNIETA

Denboraldia hasi da

SASKIBALOIA Larunbat honetan junior mailako Ganbara saski taldeak Oiarso taldea hartuko du etxean (12:30). Kadete mailakoek, aldiz, Bergaran jokatu dute. Aurreko jardunaldian junior mailakoek ZATS taldearen aurka galdu zuten. Kadete mailakoek ATSS garaitu zuten (63-73).

Senior eta jubenil mailako nesken hasiera bikaina

ESKUBALOIA Andoaingo eta Urnietako lau taldeak lehen postuetan sailkatuta doaz, denboraldiaren hasieran

Erredakzioa ANDOAIN
Gipuzkoako jubenil mailako A taldean jardunaldi ona izan zen bi taldeentzat. Leizaran taldeak Ereintzaren etxean garaipena eskuratu zuen (25-29) eta Urnietako taldeak Hernaniren aurka berdintzea lortu zuen (23-23). Gorritxoak 3. postuan sailkatuta daude, eta urdinak 5. postuan. Asteburuan 9. jardunaldiari ekingo diote.

Senior mailan Leizaran taldeko neskek jokatuak 5 partidak irabazi dituzte, eta inork baino gol gehiago egin dituzte. Urnietako taldeak 4 partida jokatu ditu, eta laurak irabazi. Ondorioz, andoaindarrak lehen postuan sailkatuta daude eta urnietarrak hirugarrenean.

Mutilak
Jubenil mailan, Urnietako taldea da jardunaldi guztiak irabazi dituen talde bakarra. Azkena, Ormaiztegin (17-21). Gol gutxien jasotzen duena da, eta lehen postuan sailkatuta dago. Leizaran hirugarren sailkatuta doa, Urola garaitu eta gero (22-36).

Senior mailan, Euskadiko ligan, Urnietako taldeak Urdaibai jasoko du etxean.

Gipuzkoako 2. mailan Leizaran taldeak Egia garaitu zuen (39-13).

Urnietako
udala

Aurreztu Andoain txartelarekin

Azaroaren 15etik
abenduaren 15era

SARIA:
5€

S2 SALKIN
bertatik bertara

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 11

ANDOAIN Irakurketa publikoa

Martin Ugalderen liburua irakurriko dute hainbat ordezkariak, eta zuzenean ikusteko aukera izango da Goikoplazan eta Bastero plazan.

11:00, Martin Ugalde Kultur Parkea.

ANDOAIN Sari banaketa

Martin Ugalde ipuin lehiaketaren XXV. edizioa. Haur eta gazte mailako lehiaketa da.

19:00, Basteroko auditorioa.

ANDOAIN Hitzaldia

"Iker Karrera. Bidea ipar" liburuaren aurkezpena. Iker Karrera korrikalariaren eta Unai Ugartemendia kazetariaren eskutik.

19:00, Basteroko ekitaldi aretoa.

URNIETA Erakusketa

"Zomorroaren kronika bat", Beñat Lizaso urnietarraren argazki-erakusketa. Azaroaren 17ra arte zabalik.

18:00; 19:00, Bisitaldi gidatuak.

Lekaio.

ESKUALDEA Euskara

Errigora.eus webgunearen bitartez Nafarroako produktuak erosiz gero, hango euskarari bultzada ematen zaio. Web bidezko eskaera, eta kaxak eskuratzeko aukera zabalik.

Saskia erosteko azken eguna.

URNIETA Antzerkia

Udal antzerki tailerrean parte hartzeko deialdia zabalik. 18 urtetik gorakoei zabalduko da ekimena da.

Epea: Azaroak 19. Sarobe.

OSTIRALA 12

URNIETA Ipuin kontaketa saioa

Izaskun Mujikaren eskutik, 4 urtetik gorako haurrentzat.

17:00, Lekaio.

URNIETA Kontzertua

La Basu rap kantariaren zuzeneko emanaldia.

19:00, Sarobe.

ANDOAIN Antzezlanak

"De Gernika a New York pasando por Berlin", Tentazioa eta Baleukoren eskutik. Agirre



Azaroaren 25ari loturiko programazioaren baitan antolatuko dute hitzaldia. **AIURRI**

ANDOAIN Hitzaldia

"Banantze prozesuetan ematen diren indarkeriak, emakumeen bizipenetatik abiatutako hausnarketa". Hizlari ariko dira Solagaistua eta Bojo adituak.

Bideo emankizuna eta hitzaldia.

Azaroak 12, ostirala. 18:30, Bastero Kulturgunea.

lehendakariaren egunerokoari buruzko egokitzapen artistikoa.

20:30, Bastero.

LARUNBATA 13

ANDOAIN Batzarra

Euskalduna Mendigoizale elkartearen bazkideen ezohiko batzarra, elkartearen egoitzan.

17:00, Euskaldunaren egoitza.

ANDOAIN Kontzertua

Edu, Crutzero, DJ Ander, Miren eta Delaossa hip hop eta rap kantariaren emanaldia. Tartearen diraren Andoingo kantariak.

18:00, Bastero.

IGANDEA 14

ANDOAIN Irteera

Babarrun jatea Berastegin, Euskalduna Mendigoizale elkartearen eskutik. Irteera orduak:

07:45 Donostia, Astoria.

08:00 Andoain, Makaldegia.

ANDOAIN Antzezlanak

"Gamusino eta Pantarua" haur antzerkia. Hogar Extremeño elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz.

12:00, Bastero.

ASTELEHENA 15

ANDOAIN Hitzaldia

Anjel Lertxundik 1997an Martin Ugalderen obrari buruzko liburua argitaratu zuen, Udaren enkarguz. Liburu hori berrargitaratu da, atal osagarriarekin.

19:00, Bastero.

ASTEARTEA 16

URNIETA Erakusketa

"Zomorroaren kronika bat", Beñat Lizasoren argazki-erakusketa.

Azaroaren 17ra arte zabalik.

18:00; 19:00, Bisitaldi gidatuak.

Lekaio.

ANDOAIN Ikus-entzunezkoa

"Las chicas de la lenceria".

Azaroaren 25ari lotutako programazioa.

19:00, Bastero.

ASTEAZKENA 17

ANDOAIN Ikus-entzunezkoa

"Jainkoak ez dit barkatzen", Lezo Urrezietaren bizitzari buruzkoa. Dokumentalaren oinarrian Martin Ugalderen grabazioak daude.

19:00, Bastero.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****El buen patrón**

Igandea, 14. 19:30.

Astl. 15. 19:30, 22:00.

Ron da error

Igandea, 14. 17:00.

Il Trovatore

Opera ikusteko aukera, Basteroko pantailan.

Asteartea, 16. 19:30.

El lobo y el león

Igandea, 21. 17:00.

Petite maman

Igandea, 21. 19:30.



SINOPSIS

**El buen patrón**

Zuzendaria, gidioia: Fernando León de Aranoa. **Aktoreak:** Javier Bardem, Manolo Solo, Almudena Amor, Oscar de la Fuente, Sonia Almarcha... **Herrialdea:** Espainia (2021). **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 120 minutu.

Aranoa eta Bardem elkarrekin

Julio Blanco probintziako enpresa baten jabea da, eta bikaintasunari saria lortzeko irrikaz dago. Bisitaldi jaso

baino lehen enpresak itxura bikaina eman behar du. Lan harremanei eta botere-harremanei buruzko filma.

SINOPSIS

**Ron da error (Ron's Gone Wrong)**

Zuzendaria: Sarah Smith, Jean-Philippe Vine, Octavio E. Rodriguez. **Herrialdea:** Britainia Handia (2021). **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Ekoizlea:** DreamWorks. **Iraupena:** 106 minutu.

Teknologiarekiko adikzioaz

Robotak haurren lagun onenak bihurtu dira. Barney 11 urteko gaztetxoa da eta haren robota ez dabil erabat ondo, etxerako

bidean zeramatela garraioan hondatu egin dutelako. Filmak teknologiarekiko adikzioaren parodia egiten du.

Erretratua “zomorroari”, Beñat Lizasoren begiradatik

Argazki-erakusketak agerian uzten du pandemia-egoerak gizarteko zenbait taldetan izan duen eragina

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Unibertsitateko ikasketen azken txanpan harrapatu zuen Beñat Lizaso urnietarra pandemiak, hain zuzen ere, gradua amaitzeko egin beharreko proiektuan lanean. Hala, Euskal Herriko gizartearen erradiografia egin nahi zuen argazki-erreportaje formatuan. Baina bere jarduna berrasmatzeko premia ikusi zuen itxialdia hasi zenean, hasierako asmoak koronabirusak iraungita. Hortaz, kazetari eta argazkilari gazteak lanaren mui- na aldatu zuen, osasun-larrialdiak gizartearen hartutako presentzia ezin ukatuta: “Nigan eta nire ingurukoengan zomorroaren eragina nolakoa izan den azaltzen duen kronika bat da, argazki bidez kontatua”.

Orotara, bost argazki-bildumek osatzen dute proiektuaren bizkarhezurra, nahiz eta erakus-

ketan bertan lau egon soilik. Argazkilaritzaren hainbat esparruk gidatuta atera ditu argazkiak, kaletik hasi eta bere baitaraino.

Erakusketa Lekaion ikusgai, azaroaren 17ra bitarte

“Zomorroaren kronika” argazki-erakusketa ikusgai egongo da Lekaion, datorren azaroaren 17ra bitarte.

Egitasmoa egilearen begietatik ezagutzeko aukera izango da, bisita gidatuen bidez. Bina txanda antolatu dira azaroaren 9an, 11n nahiz 16an, arratseko 18:00tan zein 19:00tan.

Bisitatarako sarrera doakoa izango da, alabaina, ezinbestekoa izango da izena ematea, plazak mugatuak baitira: Saroben (astelehenetik ostiralera, 09:00-13:00 eta 16:00-18:00) edo bibe.me webgunean gauzatu daiteke.



Beñat Lizaso argazkilaria. AIURRI



Erakusketarako atera zuen argazkietakoa. BEÑATLIZASO

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Uxue Ibañez Donoso
Uxue Ibañez Donosok azaroaren 10ean bete zituen. Muxu handi- handiak etxekoan partez.



ANDOAIN
Zorionak Salva
49 urte! Jarraitu jator eta gu zaintzen orain arte bezala. Eskerrik asko guztiangatik. Disfrutatu familia eta lagunekin. Etxekoak! Muxuak!

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak, 20 euro orduko. **693 692 823 - 665 719 827**

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza **edo mintza-lagun** bila dabil: Gaztelaniz eta ingelesez

/ danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: **reflexo-logist45@yahoo.co.uk**

PARTE

HARTZEKO

Emaillez: **diseinua@aiurri.eus**

Whatsapez:

619 163 537

Tel.: **943 300 732**

Bulegora etorrira: **Arantzibia 4-5,**

behea. ANDOAIN

ANTZERKIA Bete ingoiau. Zutani Teatroa
azaroak 12, **OSTIRALA**, 22:00 Suteqi **SARRERAREKIN**

KONTZERTUA Eneritz Furryak eta Maite Larburu
azaroak 13, **LARUNBATA**, 22:00 Suteqi **SARRERAREKIN**

BINAKAKO BAKARRIZKETA Luze edo Motz
azaroak 14, **IGANDEA**, 19:00 Suteqi **SARRERAREKIN**

HITZALDIA Txerra Rodriguez. 30 urte mihigintzan
azaroak 15, **ASTELEHENA**, 19:00 Suteqi **DOAN**

KONTZERTUA Ruper Ordorika
azaroak 19, **OSTIRALA**, 22:00 Suteqi **SARRERAREKIN**

DANTZA Tio Teronen Semeak, Testamentua
azaroak 20, **LARUNBATA**, 19:00 Mikel Laboa plazan **DOAN**
(Eguraldi txarra bada frontoian)

KONTZERTUA Don Inorrez
azaroak 21, **IGANDEA**, 19:00 Suteqi **SARRERAREKIN**

Sarrerak: aldeztu aurretik salgai usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaualko egoitzan

NOAUA/KO KULTURALDIA 2021

USURBIL AZAROA



Goikoplazan urriaren 29an aurkeztu zuten ekimena. Andoaingo Udalarekin elkarlanean abiatu dute ekimena. AIURRI

La Palmako biztanleen aldeko Azoka Solidarioa

La Palman sumendiak eragin dituen kaltetuen aldeko Azoka Solidarioa izango da Andoainen, azaroaren 27an (larunbata) eta 28an (igandea). Merkatu plazan, Zumea plazan eta Goikoplazan, aldi berean. Elkartasuna adierazteko aukera berria da

Xabier Lasa ANDOAIN

Biltzen duten diru guztia La Palmara bideratuko dute. Azoka Solidarioa antolatzeak hitzorduak zehaztu ditu jada, herri ekimenak. Azaroaren 14ra bitarte egingo da artikuluen bilketa kanpaina, eta hiru bilgune izango dira horretarako: Nafarroa plaza, 2; Kaletxiki, 8 eta Belabi kalea 7. Honako ordutegiarekin:

astelehenetik ostiralera: 16:00etatik 20:00etara; eta larunbata eta igandean: 10:00etatik 13:00etara.

Artikulu salgarriak

Bilketa kanpainari ekin diote jada, eta herritarrei gonbitea luzatu diete parte har dezaten. Honakoak onartuko dituzte: liburuak, CD-DVDak, dekorazio-objektuak, material informatikoa

operatiboa, kirol materiala, altzari lagungarriak, sukaldeko tresneria, bisuteria, arropa eta oinetakoak, eta jostailuak. Elikagaiak ez dituzte onartuko.

Azokari buruzko informazio gehiago: Instagram: @mercadi-llopalma; Twitter: @Mercadi-lloPalma; Facebook: @Mercadi-lloSolidarioLaPalma; Telefonoa: 656712339.



Nerea Rodriguez eta Leire Uzquiano. AIURRI

Bolondresen iritzia

Leire Uzquiano

“Gosaltzeko orduan eta ilunabarrean telebistan La Palmako irudiak ikusten ditut, eta barruak mugitzen zaizkit. Behar denerako prest nago: biltegian, salmentan... Nire aldetik, logelako armairua astindu eta zenbait arropa, egoera onean daudenak, ekimenaren esku uztea pentsatua daukat”.

Nerea Rodriguez

“Leireren anaiak komentatu zigun Azoka Solidarioarena, eta ideia zoragarria iruditu zitzaigun; gazteok ere inplikatu beharra daukagula iruditzen zait. Gure inguruan ideia zabaltzen eta kanpaina egiten, eta egia esan, guzti-guztiei ondo iruditu zaie. Horietako batzuren aldetik lanean aritzeko konpromisua lortu dugu”.

Susi Saleta

“Bea Amondarainek proposatu eta bi aldiz pentsatu gabe edozertarako prest nengoela erantzun nion. Lehendik ere Caritasekin kolaboratu izan dut, eta badakit zer den

elkartasuneko ekimenetan jardutea. Bilobak badauzkat, baina noizean behin baizik ez zaizkit egokitzen zaintzea, eta beraz, denbora soberan daukat. Nafarroa plazan bizi naizenez, hango biltegian lanean aritzeko eman dut izena”.

Pili Lopez:

“La Palmatik datozkigun irudiek eragin handia izan dute nigan. Sumendiaren ikusgarritasunak baino gehiago, atzean horrek eragiten duen giza dramak. Ezer gabe geratu diren pertsonen larrutan jartzen naiz, eta enpatia besterik ezin dut sentitu. Nire adinekoak ikusten ditut asko, seme-alabak dauzkatenak, etxerik gabe geratu direnak eta lehendik ere hipotekaren batekin itota zeudenak ziurrenik. Kanariar Uhartetako eta Espainiako gobernuek agindu dituzte laguntzak, baina bertako herritarrak kexu dira ez zaizkielako iristen ari. Gure aldetik, eskura daukaguna egin dezakegu elkartasuna adierazteko, nahiz ez izan asko”.



Susi Saleta. AIURRI



Pili Lopez. AIURRI

Aurreztu Andoain txartelarekin

Azaroaren 15etik

abenduaren 15era

SARIA:

5€

